

Ibai, laku eta ur jauziak ezagutzeko ibilaldi erakargarriak eginez lurraldea ezagutzera animatu ditu Arabak balizko bisitariak

Blaitu Arabaz proposamen berria aurkeztu du Fiturren

Madril, 2020ko urtarrilaren 22a.- Balizko bisitariak ibai, laku, barruko hondartza eta ur jauzien bitartez lurraldeko eskualdeak ezagutzera animatzen dituen eskaintza turistiko berria aurkeztu du gaur Arabak Nazioarteko Turismo Azokan (Fitur). Blaitu Arabaz programak naturaz gozatzeko 42 ibilbide proposatzen ditu, bai eta ura protagonistatzat duten hainbat baliabide bisitatzea ere.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendariak, Belén Gonzálezek, proposamen horrekin lotutako sustapen materiala (32 orrialdeko gida eta ikus-entzunezko bat) erakutsi du, Euskadiren standean izan den ekitaldian. Gonzálezek adierazi duenez, “ura oinarrizko osagaia da bizitza eta ekonomia garatzeko, baina, gainera, baliabide turistiko aparta ere bada”.

“Urak sentazio paregabeak eskaintzen eta eragiten ditu; gustuko dugu ura, eta urak gozarazten digu: ibai edo hondartza ertzetik paseatzea lasaigarria da; irribarre egiten dugu ur jauzi bat aurkituz gero; hainbat orduan ibiltzeko gai gara ur jauzi handi bat ikusteko, eta udan atsegin dugu freskatzeko bainatzea. Eta Araban hori guztia eta askoz gehiago dugu”, azaldu du.

Foru Aldundiak Araba “uraren lurraldea” izenpean aurkeztu die turismo enpresa eta eragileei, eta horretarako, probintzia eta bertako eskualdeak uraren bitartez ezagutzeko proposamen berezia erakutsi die. Blaitu Arabaz programak, gainera, aukera eskaintzen du jende gehienarentzat ezezagunak diren txoko ikusgarriak ezagutzeko.

Zuzendariaren esanetan, pertsona askok Gasteiz hiriburuko ondare eta eskaintza kulturalaren berri du, edota Arabako Errioxako upategi eta mahastiena,

bai eta Añanako Gatz Harana bezalako leku paregabeena ere. “Baina jende gutxik daki Arabak basoz eta muinoz inguratutako barruko hondartzak dituela, eta bandera urdina dutela eta bainatzera, igeri egitera edo erlaxatzera joan daitekeela haietara”.

“Edo hirietako zaratatik urrun eta ingurune natural ederretan dauden ibai igerileku eta putzu lasai eta gardenak ditugula”, erantsi du.

Proposamen horrek, halaber, bidaiariei ezagutzera eman nahi dizkie gure lurraldeko ur jauziak –besteak beste, Nerbioi ibaiaren ur jauzia–, lakuak eta urmaelak, urtegiak, arroila eta haitzarteak, hezeguneak, iturburu geza eta gaziak, sakanak eta abar.

Uraren Museoa

Belén Gonzálezek nabarmendu du leku horietan guztietan, gainera, egunetik egunera gero eta zale gehiago dituzten jarduerak eginez goza daitekeela: ur kirolak, arrantza, natura argazkigintza edo hegazti behaketa. “Gainera, beste inon ez dauden gunek ere baditugu, besteak beste, Sobrongo Uraren Museoa eta Guardiako Barbakana urmael zeltiberiarra”.

Blaitu Arabaz proposamena 32 orrialdeko paperezko gida batean dago jasota eta turismo bulegoetan banatuko dute. Horrez gain, bertsio digitala jaitsi ahal izango da www.alavaturismo.eusatarian. Gida horrek geografikoki kokatzen ditu eta argazkien bidez erakutsi, bisita daitezkeen ibilbideak eta baliabideak, eta haien osagai garrantzitsuenen berri ematen du.

Baliabideak eskualdeka edo kuadrillaka daude antolatuta, eta hauek aipatzen dira, besteak beste: Aguake ur jauzia (Antoñana), Fresnedoko ibai igerilekuak (Santikurutze Kanpezu), Igoroin sakana (Maeztu), Ihuda ibaiaren haitzartea (Okina), Zarpia ibaiaren sorburua (Kontrasta), Delikako arroila (Amurrio), Herrerias ibaiko putzuak (Erretes) eta Baia ibaiko ur jauziak (Zuia).

Horiez gain, beste hauek ere agertzen dira Blaitu Arabaz gidan: Landa eta Garaioko hondartzak, Goiuriko ur jauzia, Puron ibaiaren ertzeko ibilbidea, Uraren Ibilbidea (Bergantzu), Toberiko ur jauziak (Andoin), Lezeko sakan-haitzuloa, Guardiako urmaelak, Ebro ibaiaren ibar basoa (Lapuebla de Labarca) eta Salburuko hezeguneak.

Prentsa Oharra Nota de Prensa

Atal bakoitzean eskualde bakoitzeko bestelako natura eta ondare gunez gozatzeko proposamenak ere badaude.

Papereko gida eta bertsio digitala osatzeko, hiru minutuko ikus-entzunezko bat egin da, baliabide digitalen eta sare sozialen bitartez zabaltzeko, eta turismo eskaintza hori balizko bisitariengana iritsarazteko. Bideoan argitalpenean jasotako baliabideetako askoren irudiak agertzen dira.